

GAIA AZALDU ETA IRITZIA EMAN

Jarraibidea: 20 m dituzu testua irakurri eta gai honen garapena prestatzeko. Ondoren, 5 m izango dituzu gaia ahoz azaltzeko.

Paperezko egunkariak krisian.



Batzuek diotenez egunkaria desagertzeko zorian dagoen hedabidea da; beste askok, aldiz, euskarri-aldaketa bat soilik izango dela diote, paperean irakurtzetik on line irakurtzera. Argi dago lehen baino egunkari gutxiago saltzen dela eta dauden horiek ere orrialde gutxiago dituztela. Baina krisian al dago egunkaria?

Galdera horren eta beste askoren inguruan aritu gara Mari Luz Marzolekin, Stop liburu-dendako arduradunarekin. Hori dela eta, beherakada bat egon dela azpimarratu digu dendariak, nahiz eta eroslearen profila ez den asko aldatu urte hauetan guztietan: “Egunkaria erosten duenaren profila betikoa da; hori ez da aldatu, baina egia da gazte jendeak lehen baino gutxiago erosten duela”. Horren arrazoi nagusia zein den oso argi du: “Gazteek Interneten, tabletan edo tabernara joanda kafea hartzen duten bitartean irakurri ohi dute. Horrela, egunkariaren prezioan beste kafe bat har dezakete”.

Egunkariak saltzen hainbeste urte eman ostean, ez dela kazetarik desagertu kontatu digu dendariak berdinak saltzen ditu, nahiz eta aldaketak izan dituen: “Prezioan egon da ezberdintasuna: urteak aurrera joan ahala, handitu egin da. Gainera, astean zehar prezio bat dauka eta asteburuetan beste bat, garestiagoa”.

Berria egunkaria bide berrien bila

Egunkarien eskaintza zabala bada ere, euskara hutsez argitaratzen den bakarra Berria da. Martxelo Otamendi zuzendariaren esanetan aldaketa soziologiko bat eman da kontsumoan, egunkaria paperean irakurtzetik pantailan irakurtzera iragan baita. **Hala ere**, zuzendariarentzat arazoa beste bat da: “Paperezkoak bi diru-iturri nagusi ditu: publizitatea eta salmenta. Internetekoak, aldiz, zailagoa izango du merkatu horretan sartzea. Orain arte salmenta eta publizitatea izan dira Berriako langileen soldatak, azpiegiturak, programa informatikoak,... ordaintzeko modua: “Azken aldian salmenta jaitsi egin da eta, horri aurre egiteko, hainbat erabaki hartu behar izan ditugu: lehen, batez beste, 56 orrialdeko egunkaria argitaratzen genuen, eta orain, **berriz**, 40-48 orrialdekoa”, azpimarratu du. Horrez gain, “Berria Lagun” ekimena martxan jarri zuten: “5.000-6.000 lagun topatu ditugu, hileroko 10 euro ematen dizkigutenak, horrela dugun defizitari aurre egiten diogu. Baina nahikoa izango ote da laguntza hau etorkizunean? Gainerako kazetek zer egiten dute? Zer gertatuko da paperezko egunkariarekin?”

Informazio-iturria: [Egunkariak krisian](#) erreportajearen bertsio moldatua.

Eman gaiari buruzko iritzia:

- Zuk egunero, paperezko egunkaria irakurtzen duzu ala nahiago duzu prentsa digitala? Zergatik aukeratu duzu bata ala bestea?
- Denborarekin paperezko prentsa desagertu egingo dela uste duzu?
- Merezi du paperezko egunkariak? Prentsa digitalarekin alderatuta, ze onura ditu?
- Lehengo garaiekin alderatuta, zertan aldatu dira prentsa irakurtzeko ohiturak? Nola eragiten du twitter, facebook eta antzeko sare sozialen erabilerak?
- Zer egin daiteke paperezko prentsaren etorkizuna ziurtatzeko? (prezioa merkatu, publizitate-kanpainak gehitu, sustapen bereziak ...)
- Egunkari askoren albisteak irakurtzeko orain ordaindu egin behar da. Ados zaude horrekin? Zer egin daiteke egunkariak biziraupena ziurtatzeko? Adibidez, Martxelok aipatu dituenak ekimen egokiak dira? Zer gehiago egin daiteke?

HIZTEGI LAGUNGARRIA:

ALDERATUTA = KONPARATUTA.

BEHERAKADA egon da.- Behera egin du.

BIZIRAUPENA ziurtatu.- Bizirik irautea = bizirik jarraitzea.

Defizitari AURRE EGIN.- Defizitaren arazoa KONPONDU.

DESAGERTZEKO ZORIOAN.- Desagertzeak = ia-ia desagertzeko.

EUSKARRI digitala; paperezko EUSKARRIA.- Formatua, oinarria.

Hainbeste urte eman OSTEAN.- ondoren, eta gero.

KAZETA.- Egunkari, aldizkari, astekari ...

Paperezko prentsa SUSTATU.- Indartu, bultzatu.

Prentsa digitalaren ALDEAN.- Prentsa digitalarekin

IDEIA LAGUNGARRIAK

- *Ohiko egunkari eta kazetaritzaren aldean, prentsa digitalak era guztietako albisteak irakurtzeko aukera ematen du, modu erosoan.*
- *Sare sozialen bitartez albisteak errazago zabaltzen dira, baina askotan ez dago informazio horren filtrorik. Batzuetan arriskutsu izan daiteke informazio horrekin fidatzea.*

- *Albiste fidagarriak eta ondo kontatuak irakurri nahi baditugu, hori ordaindu beharra dago. Kazetaritza ona garestia baita.*
- *Prentsa paperean irakurtzeak besteak beste, patxada gehiagoz irakurtzeko aukera ematen dizu, eta gainera, ez duzu beti sarean konektatua egon beharrik.*
- *Paperezko prentsa desagertuz gero, irakurtzeko gozamina ere galtzeko arriskuan egon daiteke, ez baita gauza bera paperean patxadaz irakurtzea edota pantailari begira, presaka batean.*
- *Prentsa digitalak albisteak freskotasun handiagoarekin irakurtzeko aukera ematen du, baita iritzi eta iradokizunak idazteko ere. Eta hori oso erakargarria da, batik bat gazteentzat.*

Gai honi lotuta, Ikasbil atariko beste hainbat material

2087001 [Paperezko prentsa ala digitala?](#)

2081529 [Ba al du etorkizuni paperezko prentsak?](#)

1926277 [Egunkariak krisian](#)

1582635 [Egunkariak irakurriz ilustratzen gara](#)

1572523 [Jada ez gara egunkariak irakurriz ilustratzen](#)

2050556 [Kazetari bihurtu gara denok?](#)

Beste erreferentzia batzuk.

Paperezko egunkarien etorkizuna aurreikusten

<https://ezlekua.wordpress.com/2010/03/04/paperezko-egunkarien-etorkizuna-aurreikusten/>

Teknologiaren boterearen beldur da askotan kazetaritza

http://www.berria.eus/paperekoa/1598/028/001/2013-10-27/teknologiaren_boterearen_beldur_da_askotan_kazetaritza.htm

EAEko webgune bisitatuena: prentsa digitala eta sare sozialak

<http://www.argia.eus/albistea/eaeko-webgune-bisitatuena-prentsa-digitala-eta-sare-sozialak>